



## ARARTEKOAREN AGERRALDIA EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSOKO BILKURAN: 2008. URTEKO TXOSTENA

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 18a

Legebiltzarreko lehendakari andrea, mahaikideok, lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, gobernukideok. Egun on.

Ohorea da niretzat Legebiltzarraren osoko bilkura honetan agertzea Ararteko erakundearen 2008. urteko ohiko txostenaren berri emateko. Izapide honetan, pozik betetzen dut, Legebiltzarraren goi ordezkari gisa, Ararteko erakundeak 2008an burutu dituen jarduerak ganbera honi jakinarazteko betebeharra.

Orain dela hamar egun Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean agertu nintzen, txosten honexen berri emateko. Nire mintzaldian, aurreko urteetan erabilitako eskemari jarraiki, azterketa kuantitatiboa egin nuen, laburki azaldu nituen erakunde honek burututako jarduerak, txosten berezi edo monografikoak ezagutarazi nituen, baita gomendio orokorrak ere, eta agerian jarri nuen administrazioaren organo jakin batzuek Arartekoari laguntzeko betebeharra ez betetzeari eusten diotela. Osoko Bilkuraren aurrean egiten ari naizen agerraldi hau Batzordearen aurreko agerraldiaren osagarria da eta, jakina, ez ditut jorratuko dagoeneko azalduta dauden gaiak; aitzitik, ohikoa denez, hemen azalduko ditut iaz egin dugun lanaren arabera, garrantzirik handiena merezi duten gaiak, lehenetsuzko arreta ematen diegun taldeei eta gizarte errealitateei buruzko politika publikoei dagokienez.

Agerraldi honetaz baliatuta, legebiltzarkide guztiei agur esan nahi diet hasi berri den legegintzaldi honetan. Askok jada ezagutzen duzue gure erakundearen jardunbidea, baita urteko txostena Legebiltzarrean aurkezteko prozedurazko izapideak ere. Bereziki agurtu nahi dut Legebiltzarreko presidente Arantza Quiroga eta Legebiltzarreko Mahaia legegintzaldi berri honetan Osoko bilkuraren aurrean agertzen naizen lehen aldi honetan. Era berean, Patxi López lehendakaria eta sailburu berriak agurtu nahi ditut, nahiz eta horietako batzuekin bilera egiteko aukera izan dudana.

I.- Ararteko erakundearen helburu nagusia, jakina denez, pertsonen eskubideak defendatzea da, Euskadiko administrazioen jarduerari eta politika publikoei dagokienez. Horregatik, aurreko urteetan bezalaxe, politika publikoen arreta berezia merezi duten biztanle-sektoreak edo taldeak izango dira azalpen honen ardatz nagusi, lehen esan dudana bezala. Arrazoi ezberdinengatik merezi dute arreta berezia: benetan ahultasun edo arrisku egoeran daudelako edo egon daitezkeelako, gizarte desberdintasunezko, diskriminaziozko edo bazterkeriazko elementuek bere horretan dirautelako edo eskubideak benetan eta modu eraginkorrean gauzatzeko orduan gabeziak edo trabak daudelako.





Mintzaldi hau egiteko aukeratu dudan metodoak eta denbora mugatua izateak ez didate utziko interesgarriak iruditzen zaizkidan txosteneko atal batzuk aipatzen. Alabaina, azalpen honetan ez jorratu arren, legebiltzarkideoi bidali zitzaizuen urteko txostenean aurkituko dituzue, bi aurkibiderek, bata sistematikoa eta bestea gaien araberakoa, interesatzen zaizuen informazioa errazago aurkitzeko.

Adierazi dizuedan moduan, txosteneko atal batzuk oraintsu azaldu genituen Batzordearen aurrean, esaterako, honako hauek: gomendio orokorrak, txosten bereziak, bake-kultura sortzen laguntzeko beste jarduera batzuk, Ararteko erakundearen jarduera kopurutan, administrazio-organo batzuek informazioa epe barruan emateko betebeharra ez betetzeari eustea eta gomendio eta iradokizunak betetzea. Beraz, agerraldi hartan esandakoari eusten diot, eta txostenaren beraren edukiri ere bai.

Hala ere, txosteneko beste atal batzuk aipatu nahi ditut, oso interesgarriak baitira, nahiz eta agerraldi honetan ez dudan horietaz luze hitz egiterik izango.

Horrela, lehen atalean, erakundearen bideratu ditugun espedientei buruzko informazioa aurkituko duzue, gaien araberako arloetan egituratuta: osasunerako eskubidea, hezkuntzarakoa, etxebizitza izatekoa, ingurumen egokia izateko eskubidea, hizkuntza-eskubideak, funtzio publikorako sarbidea, diru-laguntzak jasotzea, eta abar. Herritarrek azaldu dizkiguten gaiak aztertzean, zenbaitetan antzeman dugu administrazioak oker jokatu duela eta jokaera horrek, batzuetan, eskubide horietakoren bat gauzatzean eragin kaltegarria izan duela. Halako kasurik gehientsuenak ondo konpondu dira.

IX. atala ere oso garrantzitsua iruditzen zait. Bertan azaltzen da, azken ondorio gisa, herritarren eskubide eta askatasunen babesa zein egoeratan dagoen, Arartekoak bere eskumen-eremuan egin duen lanaren arabera. Atal horretan, Ararteko erakundea sortu eta arautu zuen 3/1985 Legearen 32.2. artikuluan agindutakoa betetzen da. Artikulu horrek ezartzen duenez, "Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesa zein egoeratan dagoen baloratu beharko da".

Ararteko erakundearen ustez, Konstituzioaren 10. artikulua funtsezko erreferentzia da Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideak babestearen gaia nola dagoen baloratzeko. Artikulu hori Konstituzioaren I. tituluaren atariko da; titulu horretan jaso eta arautzen da gizon-emakumeen oinarrizko eskubide eta betebeharren sistema. Hortaz, oinarrizko eskubideen funtsezko zutabea da gizakiaren duintasuna, hau da, gizabanakoaren autodeterminazio eta askatasunarekiko errespetua, eta nork bere bizitza egiteko eta garatzeko eskubidea, norberaren ezaugarrien eta borondatearen arabera. Eta zutabe horrek eusten die oinarrizko eskubide guztiei. Gainera, lehenbiziko artikulua horretan bildutako ordenamendu juridiko-konstituzionalaren balio nagusiek (askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa) eskubideen sistema osoan izan behar dute eragina. Ararteko erakundearen jarduera guztien helburua pertsonen duintasuna eta balio demokratikoak tinko zaintzea da. Jakina, gure lana eman dizkiguten eskumeneren





esparruan egiten dugu eta, beraz, euskal administrazioen jardueraz eta politikez egiten dugun balorazioa ez dago parekatzerik pertsonen eskubideen babesaren egoerari eta osasunari buruzko diagnosi oso batekin.

Edonola ere, herritarren eskubideen babesa hobetzeko egiten dugu lan; hortaz, esan daiteke ebazpenetan, txosten monografiko edo berezietan, gomendio orokorretan edo Arartekoaren 26 lan-arloetako bakoitzari buruz urteko txostenean egiten ditugun gomendioen helburua jarduera desegokiak zuzentzea dela edo gure administrazioen laneko akatsak edo gabeziak zuzentzea, pertsonen eskubideen babesa etengabe hobetzeko eta gai horretan sakontzeko.

Horregatik, hezkuntza, osasun, etxebizitza, gizarte-baliabide, prestazio ekonomiko, administrazio desegoki, herritarren segurtasun, ingurumen, herri lan, administrazio-zerbitzu, hirigintza, zerga eta tasa, hizkuntza-eskubide, eta abarren gainean esaten dugun guztiak herritarren eskubideekin du zerikusia, zalantzarik gabe. Demokrazia batek dinamikoa izan nahi badu eta etengabe hobetu eta aurrera egin nahi badu, betiko helburutzat jo behar du bere administrazioen jarduerak eta politika publikoak ebaluatzea. Arartekoak, Euskadiko Herriaren Defendatzaile edo Ombudsmanak horretan lagundu behar du bere ekarpenekin.

Lehenago ordenamendu juridikoaren oinarrian dauden balioak aipatu ditugu. Eskubide-adierazpen orok edukirik gabe geratzeko arriskua du aitortutako eskubideak babesteko sistema sendo eta eraginkor bat ez badago, eta, aldi berean, eskubideak errespetatzeko balio etikoen sistema bat ez badago, herritarrek eta gizartea eratzen duten eragile politiko eta sozial guztiek aho betez onartuko dutena. Ararteko erakundeari ere badagokio giza eskubideak errespetatzearen aldeko kultura zabaltzeko eta indartzeko lan egitea.

Orduan, ikuspegi horretatik, argi eta garbi adierazi nahi dut bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea beharrezko baldintza dela gainontzeko eskubide guztiak gauzatzeko. Horregatik, beste behin ere, salaketa irmoa egin nahi dut ETA talde terroristak eskubide horiek urratzearen kontra.

Zoritxarrez, 2008an ETAk atentatu hilgarriak burutu ditu berriz, Isaías Carrasco, Juan Manuel Piñuel, Luis Conde eta Ignacio Uría hil ditu.

Elkartasun bene-benetakoa eta hurbiltasuna adierazi nahi dizkiet terrorismoaren biktima berri horien hurbileko pertsoneri, haien familiei eta lagunei, eta zeharo gaitzetsi halako giza eskubide oinarritzkoenen aurkako ekintzak. Berriro ere adierazi beharra daukagu funtsezkoa dela botere publiko guztiek parte har dezaten ETA talde terroristak egiten duen indarkeriaren erabilera gizartean eta politikan deslegitimatzeko.

Orobat, gogoan izan behar ditugu bizia edo osotasun fisikoa galtzeko mehatxupearan bizi diren herritar guztiak, beren askatasuna mugaturik ikusten dutenak. Tamalez, herritar ugari estortsio ekonomikoaren mende daude oraindik ere, eta beren askatasun eta ondasunen kontrako indarkeria jasaten ari dira.





Botere publikoentzat lehentasunezko helburua izan behar du indarkeria deslegitimatuta eta desagerrarazteak, baita indarkeriaren biktimei arreta eta babesa emateak ere. Beti egin daiteke eta egin behar da gehiago arlo horretan, eta Arartekoak administrazio eskudunei hori aintzat hartuta jardun dezaten eskatzeko betebeharrak legal eta etikoa du.

Desagerrarazi beharra dago gizaki batek beste baten kontra egiten duen indarkeria oro. Ildo horretan, nabarmendu behar dugu ahalegin handiagoak egin behar direla prebenitzen, gizartea sentsibilizatzen, gizakiaren duintasun, askatasun eta berdintasuna errespetatzeko balioak lantzen, eta, jakina, gero eta erantzun eraginkorragoak eta bizkorragoak ematen emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloan, eta mota askotako beste indarkeria batzuen arloan: adingabe batzuek bere kideen kontra, gurasoen edo irakasleen kontra egiten duten indarkeria, adingabeen aurkako indarkeria eta sexu abusuak, pertsona edadetuen kontrako indarkeria, eta abar.

Bestalde, bereziki azpimarratu nahi dut politika publikoetan modu eraginkorragoan lan egin behar dela zertzelada pertsonalen batengatik inor diskrimina ez dezaten. Horretarako, desagerrarazi egin behar dira aurreiritziak, fobiak eta demokraziaren kontrako balioak, esate baterako, matxismoa, sexismoa, arrazakeria, homofobia edo xenofobia. Horren haritik, euskal herritar askok beren eskubide eta askatasunak erabili ahal izateko, botere publikoek beharrezko baldintzak sustatu behar dituzte, euskal gizartea osatzen duten pertsona guztien askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta egiazkoak izan daitezen, eta kendu egin behar dituzte eskubide horiek baliatzea eragozten edo zailtzen duten oztopoak.

Gure lanaren ondoriozko ideia eta gogoeta hauek, gure ustez, garrantzi handia dute, izan ere, pertsonen eskubideen sistemak euskarriztat hartzen dituen balio eta printzipio nagusiekin lotuta daude. Atal hau bukatzeko, herri-administrazio guztiei dei egin behar diegu, administrazio desegokiaren kontra biziago borroka daitezen, –horixe baita herritarrek kexatzeko arrazoi gisa gehien aipatzen duten gaietako bat– eta beren jarduerak administrazio egokiaren printzipioa osatzen duten arauetan oinarritu ditzaten. Horretarako, konpromiso argi eta irmoak egin behar dira administratuen eskubideak bermatzeko; administrazio barruan kalitateari, ebaluazioari, kontrolari eta barne-ikerketari dagozkion protokoloak onartu behar dira; erabiltzaileen eskubideen gutunak onartu behar dira, e.a.

Eskaera horiek garrantzi berezia hartzen dute administrazioen jardueraren eremu batzuetan: adibidez, polizia kidegoen polizia-etxeetako atxiloteta zentroetan eta hainbat espetxetan, izan ere, espetxe horietan, duintasunerako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubide oinarritzeko babesteko badira, tratatu txarrei aurrea hartzeko protokolo eta tresna eraginkorrak behar dituzte eta egon daitezkeen salaketak ikertu behar dituzte, hala badagokio.





II.- Jarraian, garrantzitsuak iruditzen zaizkigun zenbait alderdi nabarmenduko ditugu, Ararteko erakundeak lehentasunezko arreta behar duten biztanle-talde edo sektore gisa identifikatuta dauzkan taldeei buruz. Taldeok politika publikoen behar izugarria dute beren eskubideak erabiltzean erabateko berdintasuna bermatzeko, beren duintasuna behar bezala zaintzeko, egiturazko ahultasunak edo gizarte-arauen ondoriozko ahultasunei aurre egiteko. Honako taldeok dira, hain zuzen: gizartean baztertuta edo pobrezian bizi diren pertsonak; emakumeak; adingabeak; atzerritarrak; adinekoak; ezinduak; terrorismoaren biktimak; gaitz kroniko fisikoa edo mentala duten pertsonak; joera homosexualekoak edo identitate transexualekoak; askatasunik gabeko pertsonak: espetxeratuak eta atxilotuak; eta ijito herria eta beste gutxiengo kultural batzuk.

### 1. Gizartean baztertuta edo pobrezian bizi diren pertsonak

Larriki baztertuta bizi diren pertsonen kopurua hazi egin dela eta beraien zertzelada pertsonalak okerrera egin dutela egiaztatu denez gero, talde honekin berariak esku hartu behar izan da.

Lehendabizi ohartarazi nahi dizuet gure erkidegoko pertsona askok ikaragarritzko zailtasunak dituztela beren eskubideak baliatzeko eta etxebizitza edo elikadura bezalako oinarritzko premiei aurre egiteko. Horrelako zailtasunak krisialdi ekonomikorik gabe ere baziren, 2006an *Etixerik gabe edo bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna* izenburuko txosten berezian aztertu genuenez. Egungo krisialdi egoerak eragin larria dauka talderik ahulenengan, eta horregatik berebiziko garrantzia hartzen dute gizarte-egoera ahulean dauden pertsonen laguntzeko programek.

Gizarte garatu batean bazterketa larria pairatzen ari diren edo etxerik ez duten pertsonak egoteak **gogoeta eragin behar digu**.

Gure inguruan beren eskubideak baliatu ezin dituzten edo bizimodu duina egiterik ez duten pertsonak daude, lanik eta bizilekurik ez daukatelako. Zailtasun horiei beste batzuk gehitzen badizkiegu, esaterako, familia eta gizarte harremanik ez izatea, irregulartasun administratiboko egoeran egotea, bereizkeria edo osasun arazoak izatea, bazterketa-prozesua larriagotu egiten da. Gizarte politikak martxan jarri diren arren, pertsona askok ezin diete aurre egin **ekonomia- eta gizarte sistemak dituen zailtasun eta eskakizunei**, batez ere bakarrik daudenean, inolako sostengurik gabe.

Arartekoak **gizartean babesik gabe** dauden pertsonen kexa ugari jaso ditu 2008an. Laguntzak nahikoa ez direla, non bizi ez dutela, prestazioak ukatzen zaizkiela, eskariei erantzuteak luze jotzen duela, edo erroldan izen ematen uzten ez zaiela azaltzen dute. Gizarte zerbitzuenganako mesfidantza eta baliabideak profil edo behar batzuetara egokitzen ez direla ere aipatzen dute.

Euskadin bizi den pertsona bakoitzak bizimodu duinarekin lotutako behar guztiak aseta eduki behar ditu. Herri-administrazio guztiek helburu nagusi hori





izan behar dute eta baliabideak optimizatu behar dituzte, erakunde arteko eta erakunde barruko koordinazioa eta lankidetzaz hobetu, eta oraingo gabeziak estaltzeko baliabide eta tresna berriak jarri.

Atal hau bukatzeko, bereziki kezkatzen gaituen beste arazo bat aipatu nahi dut: hain justu, buruko gaixotasun larriak dituzten eta **babesik gabe dauden helduak gehituz doaz**, euren osotasuna arriskutan jartzeraino. Autonomiarik ez duten edo ezgai diren pertsona horiek erronka berriak sortzen dizkiete erakunde publikoei, hauek ez baitira erantzun egokia ematen ari.

## 2. Berdintasunerako eskubidea babestea, baita emakumeen bizia eta osotasun fisiko eta morala ere

Emakumeek baldintza bereziki txarrak eta desberdinak pairatzen dituzte, oraindik ere, bizitzako arlo askotan eta, aldi berean, zailtasun eta oztopo bereziak aurkitzen dituzte beren eskubideak baliatzeko orduan. Horregatik, ezinbestekoa da botere publikoek esku hartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa eraginkorra eta benetakoa izango dela bermatzeko.

Gaur egungo gizartearen arazo larrienetako bat emakumeen kontrako indarkeria matxista da. Emakumeen duintasun, askatasun eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako eraso onartezina da eta, kasurik larrietan, emakumeek bizia ere galtzen dute.

2008an Euskadiko lau emakume hil zituzte euren bikotekideek edo bikotekide ohiek (Estibaliz Angulo, Nagore Laffage, Doccas David eta Clara Rangel). Genero indarkeriak, hilketa horiek ez ezik, indarkeriazko gertakari asko ere sortu ditu eta, horien ondorioz, genero indarkeriako epaitegi espezializatuek guztira 3.979 zigortzeko gai aztertu zituzte. Zifra garrantzitsu horiek, segurutik, ezkutuko errealitate baten izebergaren muturra baino ez dira, eta aditzera ematen dute emakumeen eskubideak guztiz urratzen direla; horren ondorioz, Euskadin hamabost emakumek bizkartzaina eraman behar izan dute 2008an, euren osotasun fisikoa eta bizia segurtatzeko.

Genero indarkeria erabat deuseztatzea ahalbidetuko duen gauza bakarra pertsona guztien arteko benetako berdintasuna izatearen ideia berresten badugu ere, funtsezkoa da botere publikoen erantzuna tratu txarrak jasandako emakumeen beharretara egokitzea.

Erantzun horrek diziplina ezberdinak uztartu behar ditu, besteak beste, jarduera judizialak, laguntza juridikoa, gizarte eta abegi zerbitzuen funtzionamendua eta etxebizitza bat izateko aukera lotuz.

Erakundeek indarkeriari ematen dioten erantzunaren eraginkortasuna hainbat faktoreren baitan dago, esaterako: fenomeno ongi ezagutzea; zerbitzuak etengabe ebaluatzea eta zerbitzuak diagnostiko berrietara egokitzea; erantzuna arin, azkar edo berehala ematea; zerbitzuak alde aurretik Autonomia





Erkidegoko lurralde osorako planifikatzea; edo zerbitzu guztiek elkarrekin koordinatzea (herrietakoak barne). Ildo horretan, aipatzekoak dira Koordinazio Zentro Bakarra eta Integrala sortzea eta Generoko eta Familia barruko Indarkeriaren Balorazio Integralerako Unitateak diseinatzea.

Arartekoak beste lan garrantzitsu bat ere egiten du emakumeen eskubideei buruz duen arloan: hain zuzen, Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa betetzearekin zerikusia duen lana. Kexa-espeditenteak aztertzeaz gain, lege horren garapenak eta ezarpenak duen bilakaera aztertzen dugu, Emakundek ematen digun informazioari esker. Benetan eskertzen diogu laguntza hori.

Euskal herri-administrazioek berdintasunerako planak eta egitarauak ateratzeko lana orain bertan nola dagoen ikusita, esan behar dugu gaur egun emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana daukatela (Berdintasunerako euskal Legearen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera) hiru foru aldundiek, 56 udalerrik eta mankomunitate batek; horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bi herenak baino gehiago dira (baina, 2008ko abenduan, 195 udalerrik artean ez zeukaten berdintasunerako planik). Beraz, aurrera egin beharra dago, berdintasunerako planik ez daukaten administrazioek hori lehenbailehen onar dezaten eta planak betetzeari buruzko ebaluaketa-tresnak alaitz azkarren abiaraz daitezten.

Legean aipatzen den beste tresna bat zera da: araudietako xedapenetan genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluaketa egitea eta desberdintasunak kentzeko bideak jartzea. Tresna horri dagokionez, aipatzekoa da 2008an horrelako txostenak (57) aurreko urtean Emakundek jasotakoak halako bi baino gehiago izan direla. Horrek erakusten du ahalegin handia egin dela arauetan ezarritakoa betetzeko, eta Eusko Jaurlaritzako sailek egunetik egunera gehiago parte hartzen dutela beraien politika publiko guztietan berdintasunaren helburua gauzatzeko.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, zera adierazi behar dugu gure lanaren ondorioz prozesatzen dugun informazioaren argitan: herri-administrazio batzuek ez dute behar bezala erabiltzen gai honetan duten erantzukizuna beren udalerrietako jaiak ospatzean. Administrazioen betebeharra da jarrera tinkoa eta proaktiboa hartzea, guztientzako eremuan antolatzen diren ekitaldietan emakumeek gizonak bezalaxe parte hartu ahal izan dezaten. Jai-guneek garrantzi handia dute, ez bakarrik berdintasunerako eskubidea babesteko, baizik eta baita ere haur eta nerabeei balioak helarazteko. Izan ere, haur eta nerabeei beren jaietan ikusten dituzte gizarte arloko balioen adierazgarriak, eta horiek beraientzat balio osoa eta legitimazioa lortzen dituzte.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari eginiko aipamena amaitzeko, azpimarratzekoa da urtero egiaztatzen den desberdintasunaren muturreko seinale bat: pobreziaren feminizazioa deritzanaz ari gara; horren ondorioz, gizarte-zerbitzuen erabiltzaile gehienak emakumeak dira.





### 3. Adinekoak

Adinekoek geroz eta talde ugariagoa eraten dute –400.000 pertsona pasatxo–, euskal biztanleriaren % 20 inguru. Ondorioz, beharrezkoa da botere publikoek demografian igarritako errealitate horri eta bereziki arreta behar duen talde horren beharrei erantzutea.

Oraindik ere, EAEn hirugarren adinerako gizarte baliabide gutxi dago, baina horiek hiru lurraldeetan duten banaketa ez da berdina; hala ere, adinekoentzako egoitza zentroetan, eguneko zentroetan eta etxez etxeko laguntzan haziz joan da plazen estaldura osoaren tasa.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuari dagokionez, berriazko arau autonomikoa behar da hori arautzeko, eta lortu behar diren laguntza mailak ezartzeko, zerbitzuak aukera berdintasunez eskuratzen direla bermatzeko. Lurraldeen arteko desorekak ikusi dira, besteak beste, zerbitzuak lortzeko baldintzetan, prezio publikoa finkatzean, familia-unitate kontzeptuaren zehazteko orduan (erabiltzaileak hartutako zerbitzuaren zenbatekoa kuantifikatzeko), laguntzako batez besteko ordu kopuruan edo zerbitzua asteburuetan edo oporretan ematean. Horren ondorioz, arauzko neurriak ez ezik, kudeaketakoak eta finantzakoak ere hartu behar dira, lurraldeen artean orain dauden desorekak arintzeko. Beharrezko neurriak hartu behar dira etxez etxeko laguntzaren estaldura maila egokia bermatzeko, bai estaldura-tasaren eta bai zerbitzuaren intentsitatearen ikuspegitik. Esan daiteke etxean laguntza jasotzen duten adineko pertsonen kopuruak gora egin duela EAEn, baina hazkunde horrek ez du esan nahi, kasu guztietan, erabiltzaile bakoitzeko laguntza-ordu gehiago eskaintzen direnik.

Adinekoentzako berritasun oso garrantzitsu bat, Gizarte Zerbitzuei buruzko ekainaren 25eko 8/2008 Legean ezarrita dagoena, pentsioduna oinarrizko errentaren titulartzat hartzea da, familiaren etxean diru-sarrerak dituen beste pertsona bat egon arren, ezkontidea izan ezik.

Bestalde, kezagarria da adinekoiei emaniko tratatu txarrak egotea edo haiei emaniko tratua behar bezalakoa ez izatea; oso errealitate opakoa da oraindik, eta antzematen zaila, baina gero eta ezagunagoa.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu 65 urtetik gorako hamar pertsonatik bakar batek jasotzen duela gaur egun erakundeen aldetik nolabaiteko arreta. Hori dela-eta, babeserako sare informala, adinekoaren senideak normalean –kasu gehienetan emakumeak– kontuan hartu beharko litzateke garatzen diren gizarte politiketan.

Horri dagokionez, Mendetasunari buruzko 2006ko abenduaren 14ko Legeak eta hori garatu duen dekretuak prestazio ekonomikoa aurreikusi dute familia barruan egindako zaintzetarako; horrela, onartu egiten da mendetasuna duen







pertsonarekin (gehienbat, adineko pertsonekin) bizi diren familiako askok egiten duten ahalegin handia.

4. Adingabeen arazoei berariazko arreta emateari buruz, beste behin ere argi utzi behar da adingabeak eskubideak dituzten subjektuak direla, baina, gainera, berez dituzten ezaugarriengatik, oso biztanle-sektore ahula osatzen dutela, bermatu behar diren eskubide bereziekin. Horregatik, Arartekoak berariazko eta lehentasunezko arreta behar duen taldeztat jotzen du talde hori.

Aldi berean, badira, beren eskubideei dagokienez, arrisku berezian dauden hainbat talde: babesik gabeko haurrak eta nerabeak, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak; adingabe lege-hausleak; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak; buru-osasuneko arazoak dituzten haur eta nerabeak, edo atxilotutako adingabeak.

**Familiaren babesik ez duten haur eta nerabeak** direla eta, jarduera bat egin da Euskal Autonomia Erkidegoko 10.000 biztanletik gorako 40 udalerrietan. Agerian gelditu da aldatu egin dela laguntza jasotzen duten familien tipologia; hain zuzen ere, arazo anitzeko familiak izatetik familia normalizatuagoak izatera igaro dira, baina adigabeei arauak eta mugak ezartzeko orduan arazoak dituztenak.

Lagundu beharreko adingabeen profilari dagokionez ere aldaketa handiak izan dira. Horrela, nabarmendu nahi dut dezente hazi dela drogak egunero hartzen dituzten 13-17 urte bitarteko nerabeen kopurua; horien gurasoak ez dira gauza nerabeoi arauak edo mugak ezartzeko eta, gainera, askotan, gazte horiek ez dira eskolara joaten; kultura kode desberdineko etorkinen kopuruak ere gora egin du; guraso bakarreko familiak; familia barruko indarkeriari eta emakumeen kontrako tratu txarrari lotutako arriskuak; gurasoen ezintasuna haurren/nerabeen jokabidea kontrolatzeko; "enperadorearen sindromea" duten nerabeak; familiak berriro batzea, urteetan bananduta egon ondoren...

Babesik gabe dauden nerabeen sektorearen barruan, **bakarrik dauden adingabe atzerritarrek** ezaugarri eta beharrezko taldea osatzen dute.

Baliabide sarea zabaldu egin da, kasu batzuetan behin-behineko instalazioak eginda edo lehendik zeuden zentroetako plaza kopurua gehituta. 2008an lehenengoz babestutako adingabeen kopuruak eta urtean zehar hartutako adingabeen kopuru osoak nabarmen egin dute gora: Araban hirukoiztu egin da, Gipuzkoan % 50eko hazkundea izan du eta Bizkaian hazkunde txikia gertatu da.

Erakunde honentzat kezagarria da bakarrik dauden adingabe atzerritarrak hartzeko zentro berriak irekitzearen aurka egotea auzokideak. Horrelako kasuetan, beti azpimarratu izan dugu gizartea sentsibilizatu behar dela, halako gizarte-baliabideen premiaren gainean; horretarako, gizarte politikari eta programei buruzko informazioa eman behar da etengabe. Halaber, parte





hartzeko mekanismoak sustatu, gizarte baliabideak zona berean metatzea ekidin eta zerbitzuen funtzionamendu egokiaren bermeak eskaini behar dira.

**Adingabe lege-hausleei** dagokienez, betearazitako neurrien kopuru osoa egonkortu egin da, nolabait ere. Hain zuzen ere, erkidegoaren onurarako prestazioek beherakadaxoa izan dute, eta zaintzapeko askatasun neurriek gorakada handia izan dute, baita gizarte eta hezkuntza lanek ere, neurri txikiagoan izan arren.

Azken urteotan, ikastetxeen sarean gehitzen ari dira berariaz adingabe lege-hausleentzako dauden plazak. Oraindik ere handia da babes-eremutik iritsitako adingabe arau-hausleen proportzioa (jokabide arazo larriko nerabeak eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrak). Harrera-sistemak oinarrizko beharriaz erantzun egokia ematen ez dienean, arazo asko zigortzeko sistemara heltzen dira.

Aipagarria da 2008an familiaren barruan eraso egiten duten nesken kasu dezente izan direla; horiei gurasoengandik banantzeko neurria ezartzen zaie.

**Hezkuntza-premia bereziak edo berariazkoak dituzten taldeak eskolatzeari** buruz, nabarmendu behar dugu zertxobait gora egin duela ezintasuna, supergaitasuna eta hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen kopuruak (%60 sare publikoan eskolatuta). Talde horiei arreta eta laguntza ematen diharduten profesionalen kopurua handia da (3.000 baino gehiago).

**Pobreziari eta adingabeei** lotutako egoera kezagarriak ere ikusi ditugu. Egoera hau, batez ere, etxerik ez duten eta adingabeak dituzten familien edo baliabiderik gabeko emakume atzerritarren kasuan gertatzen da; horiek haur jaioberriak dituzte, eta euren ostatu bakarrak gaueko harrerako zentroak dira.

Bukatzeko, egoerarik kezagarrienak honako hauek izan direla esan dezakegu: bakarrik dauden adingabe atzerritarrak; eskolako jazarpena; haur eta gazteen buru-osasunari eskaintako arreta, eta osasun-sistemak buru narriadurako, droga-mendetasuneko edo jokabide arazo larriko egoerei (batez ere, nerabeen kasuan) emandako erantzun eskasa.

## 5. Atzerritarren eskubideak dira urratzeko arrisku handiena dutenak

Europar Batasunaz kanpoko atzerritarrek dituzten premia nagusietako bat legezko eran lan egin eta bizitzeko baimena ematen dien dokumentazioa lortzea da. Estatuko Administrazio Orokorrek du dokumentazio hori izapidetzeko eskumena. Hori dela-eta, Herriaren Defendatzaileari bidali zaizkio batez ere dokumentazio prozesuari buruz egin diren kexak.

Atzerritarren arazorik ohikoenetako batzuk honako hauek dira: zigor-aurrekariaren ezereztea tramitatzeko zailtasunak egoten dira, pertsona horiek egoera irregularrean daudenean; zigor-aurrekariak jatorrizko herrian sortzea eta agiriari



legeztatzea; baimentzeko espedienteen ebazpena atzeratzea; edo egoitza eta lana edukitzeko baimenen berriztapena ukatzea.

Berriro adierazi behar da udalak sustraitze sozialaren txostena betetzeak duen garrantzia, izan ere, sustraitze sozialaren prozedura hori da, egun, atzerritarrei gure lurraldean bizi eta lan egiteko baimena emango dien dokumentazioa lortzeko bide nagusia.

Era berean, nabarmendu behar da egoera irregularrean dauden atzerritarrentzat oso garrantzitsua dela udalaren erroldan izena ematea.

Egoera irregularrean dauden pertsona atzerritarrek ezin dute jaso emantzipazio errentako laguntzarik, eta hori kontrajarri egiten zaio EAEko Immigrazio Planeko herritartasun inklusiboaren printzipioari.

Azkenik, adierazi behar dugu, zenbait kasutan, atzerritar batzuek poliziarengandik jasotako tratua salatzen dutela, euren ustez bereizkeriazkoa izan baita, atzerritarrak direlako.

6. Ijito herriko pertsonak oso laidoztatuak izan dira historian zehar, eta gizarte zerbitzu, baliabide eta aukeretarako sarbidea mugatuagoa izan dute

**Ijito herriko** pertsonen taldea oso talde estigmatizatua izan da tradizioz, eta gizarte zerbitzu eta aukeretara sarbide mugatuagoa izan dute.

Gure erkidegoan ijito herria osorik bultzatzeko eta gizartean parte hartzeko plan zehatza egon arren, talde horren zati handi batek gizartean baztertuta geratzeko arrisku handiena duten taldeetako bat izaten jarraitzen du. Oraindik ere, zenbaitetan, Euskadiko udal batzuek ez dituzte erroldatu nahi izaten benetan udalerrian bizi diren ijito familiak.

Halaber, bizikidetzako, mesfidantzazko eta arbuiozko arazoak ikusi dira ijitoen eta Bizkaiko udalerrietakoren bateko auzokideen artean, edo udalarekin berarekin. Arazo horiek faktore ezberdinek eragin dituzte, baina, zoritxarrez, talde horrekiko gaitzespen xenofoboa dago oraindik ere.

Herri-administrazioek beren gain hartu behar dituzte auzo batzuk gizarte arloan biziberritzeko, berrantolatzeko eta osorik birgaitzeko prozesuak, herritarren gizarte beharrei erantzunez.

Ijito herriak jasaten dituen bereizkeria arazoetariko batzuk honako gai hauekin dute zerikusia: adingabeen eskolatzea, bizilekua lortzeko zailtasunak edo bereizkeria kasuak, adibidez, tabernetan edo dendetan sartzeko debekua.

2008an zenbait jardueraren berri eman dugu: esaterako, Sestaoko hainbat auzo gizarte eta hirigintza arloetan biziberritzea, edo Abanto-Zierbenako Santa





Juliana auzoa biziberritzea; jarduera horietan, jendea berriz kokatzeko prozesuek, kasu batzuetan, ijito familiei eragin die.

Mintzaldi honetan, La Arboledan bizi izan den egoera larria azpimarratu nahi dut, oraindik normalizatu ez dena. Izan ere, han benetako gizarte-lintxamenduzko gertakariak jazo dira bost ume dituen ijito familia baten kontra, eta gertakari horien aurrean udalak pasibotasun-jarrera tamalgarria erakutsi du.

7. Bestalde, pertsona ezinduek ere zailtasun handiak aurkitzen dituzte eguneroko bizimodua gainerako biztanleek bezalaxe egiteko, hirigintzako eta erabilera publikoko eraikinetara sartzeko arazoengatik, kasu askotan garraibiderik erabiltzerik ez dutelako, edo laneratzeko arazoengatik

Ezintasunen bat duten pertsonak eskubidea dute zuzkidura publikoak eta taldeko ekipamenduak besteek bezalaxe erabiltzeko. Eskubide horren alderdietako bat, jakina, taldeko ekipamenduetarako eta zuzkidura publikoetarako irisgarritasun unibertsala bermatu beharra da, arkitektura oztopoak kenduz.

Pertsonak eremu publikoetara iristearekin loturiko arazoetako bat, irisgarritasuna sustatzeko planak abiarazteak eragindakoa honako hau da: onartutako udal obretan, hiriko oztopoak kentzeko edo gainditzeko, eskailera mekanikoak jartzeko hautabidea baino ez da aukeratzen. Arrapala eta eskailera mekanikoek ez dute konpontzen pertsona guztien irisgarritasun arazoa, izan ere, hasiera batean, adinekoek, haurrak dituzten pertsonak, ezintasun fisikoa dutenek ezingo lituzkete halako instalazioak erabili.

Horrenbestez, gure iritziz, araudian ezarritakoa betetzeko, lehenatasuna eman behar zaio egokituriko igogailuen instalazioari, eta bigarren mailan utzi behar da arrapala nahiz eskailera mekanikoen edo tapiz gurpildunen konponbidea.

\* \* \* \*

Herritarrek egiten duten beste eskaera bat etxebizitza irisgarria izatea da, hau da, higiezinaren kanpoaldean gainditu ezineko arkitektura-oztoporik ez egotea. Atal honetan aipatu behar dugu pertsona batzuek arazoak izaten dituztela lehendik dauden eraikinetan **igogailuak** jartzeko.

Kasu batzuetan ezinezkoa izaten da arkitektura-oztopoa kentzeko konponbidea eraikinaren barruan edo komunitatearen lur-zati pribatuaren barruan egitea. Halakoetan, igogailua fatxadari itsatsi behar izaten zaio eta erabilera publikoko lurzorua zati bat hartu behar izaten da. Neurri horrek hirigintza-arazo bat sortzen duenez gero, ondo haztatu behar izaten dira hiriko lursailak modu egokian antolatzeko interes publikoa eta eraikinaren irisgarritasuna ahalbidetzeko interes soziala. Administrazioek baloratu egin behar dute ea noiz baimendu daitekeen herri-bideak okupatzea, okupazio horrek oinezkoen





igarobideko zonak estutzen dituenean eta eraikinen eraketa nahiz estetika aldatzen dituenean.

\* \* \* \*

**Garraio publikoa** beren kabuz eta gainontzeko pertsonak bezalaxe erabili ahal izatea da, oraindik ere, ezinduen beste eskaera nagusienetako bat. Euskal Autonomia Erkidegoan garraio publikoko zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresen erronka nagusia ere bada, une honetan garraioaren irisgarritasun unibertsala ez baitago bermatuta, arlo horretan aurrerapen handiak egin diren arren.

\* \* \* \*

**Zergen** arloan, pertsona ezinduak oraindik ere kexu dira udal batzuek trabak jartzen dituztelako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren zenbatekoan salbuespena aplikatzeko.

Hainbat kexa egin dituzte ezgaitu txartelaren titular diren mugikortasun urriko pertsonak, ibilgailua aparkatzerakoan dituzten zailtasunak salatzeko, gordetako plaza-kopurua eskasa delako edo erabiltzaile batzuek ez dituztelako plaza horiek edo aparkatzeko txartela bera behar bezala erabiltzen.

2008an gora egin du honako hau eskatzen duten kexen kopuruak: **mugikortasun urri iraunkorreko pertsonentzat gordetako etxebizitzetako eraikuntza akatsak** konpontzea. Kexa horietan salaturikoaren arabera, esleitutako etxebizitzak ez ditu betetzen irisgarritasuneko gutxienezko baldintzak, eta, beraz, esleipendunak ezin du etxebizitza bere kabuz eta normal erabili.

Gorrek salatzen dute hedabideak erabiltzeko trabak dituztela; euren ustez, ez da betetzen neurri teknikoen plana onartzeko legezko betebeharra, pixkanaka herritar guztiei komunikaziorako eskubidea bermatuko diena. Haien aburuz, telebista emisioko ordu gutxi eskaintzen zaizkie gorrei.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu EAEko udalerrri askok dagoeneko onetsi dutela 1997ko Irisgarritasunari buruzko Legean ezarritako lau urteko plana. Arartekoak Eusko Legebiltzarrari 2003an aurkeztu zion txosten berezian adierazitakoaren arabera, EAEko zazpi udalerririk baino ez zuten bete plana egiteko legezko agindua. Orain, aldiz, 10.000 biztanletik beherako 107 udalerririk badute lau urteko plana. Hala ere, legea onetsi zenetik hamar urte igaro ondoren, irisgarritasuna bermatzeko tresna garrantzitsu hori ez duten udalerriei hori sortzeko eskatu behar diegu berriro.

8. Legerian aurrerapauso handiak egin diren arren, joera homosexualeko pertsonak, gay eta lesbianek, identitate transexualekoek edo transgenerikoek





oraindik bereizkeria, irainak eta gizarte bazterkeria jasaten dituzte, homofobiazko eta heterosexismo baztertzaillezko jokabideak direla medio

Nabarmentzekoa da egun oraindik pertsona homosexual asko ez dela ausartzen maitasuna erabateko askatasun eta duintasunez bizitzera; beraz, lanean jarraitu behar da pertsona horientzat berriki lortutako berdintasun formalarekin batera, benetako gizarte-berdintasuna lortzeko, izan ere, gizartean berdintasun hori oztopatzen duten elementu ahaltzuak daude oraindik ere. Egoera hori bereziki kaltegarria eta arriskutsua da joera homosexuala edo identitate transexuala duten nerabeentzat. Botere publikoek nerabe horiei beraien nortasuna aske garatzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea bermatu behar dizkiete, baita segurtasuna eta ongizatea ere; horretarako, plan, programa eta protokolo eraginkorrak sortu behar dituzte, gaur egun ez baitago halakorik.

#### 9. Terrorismoaren eta jazarpenezko indarkeriaren biktimak ere aipatu nahi ditut

Ararteko erakundeak terrorismoaren biktimenganako sentikortasuna agertu izan du beti, eta, horregatik, erakunde honentzat lehentasunezko arreta merezi duen taldeetako bat da. Betidanik ahalegindu gara, eta oraindik ere horretan dihardugu, biktimei une orotarako elkartasuna eta gertutasuna adierazten, eta, aldi berean, nabarmenarazten beharrezkoa dela botere publikoek eta gizarteak konpromiso tinkoagoa har dezaten, alde batetik, pertsona horiek bizi izan duten eta oraindik bizi duten egoera agerian jartzeko, eta, bestetik, behar duten arreta eskaintzeko, jasandako kaltea konponduz eta erasotua eta zikindua izan den duintasuna lehengoratzuz.

2008. urtean aipatzekoa da, gertaera garrantzitsuenetako bat bezala, legebiltzar honek ekainaren 19ko 4/2008 Legea onartu zuela, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa. Luzaroan horren zain egon ondoren, lege horrek terrorismoaren biktimen egoera bidegabea konpontzen lagunduko du.

Oso ontzat jotzen dut lege horrek biktimen esanahi politikoa eta terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikoaren beharra aitortzea.

Gainera, pozik adierazi nahi dut hil honen 29an terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arretari buruzko txosten bat emango diogula Eusko Legebiltzarreko presidenteari. Azken bi urteotan prestatu du txosten hori Ararteko erakundeak eta biktimei ematen zaien arreta ere hobetzen laguntzea espero dut.

Txosten horren berrikuntzetako bat hauxe da: mehatxu eta hertsapen terroristen, hau da, "jazarpen indarkeria" deritzanaren biktimen egoera aztertzen du.





10. Gaixo kronikoen taldeak, hasiera batean, tratamendu edo zainketa sendagarritzat ezagutzen ditugunak ez diren beste batzuk eskatzen ditu

**Gaixo kronikoen** arazoetariko bat errehabilitazioa da, gaixo horien ustez sistema publikoak eskainitako maila ez baita nahikoa.

Halako premiak EAEko Osasun Publikoan Gaixotasun Kronikoen Errehabilitazioa Hobetzeko 2007-2009 Planean aurreikusita daude (gaixotasun neurologikoak, gaixotasun kardiologikoak, biriketako gaixotasunak, bularreko minbizia eta linfedema). Hala eta guztiz ere, errehabilitazio neurologikoari lotutako jardueretan, burmuineko gaixotasun baskularra edo garezurreko nahiz entzefaloko traumatismoa duten gaixoen arretak ez dauka jarraitutasunik; izan ere, oro har, sistema publikoan ez dago errehabilitazioko tratamendurik.

Halaber, bularreko minbiziaren detekzio goiztiarreko oraingo programa berrogeita hamar urtetik beherako emakumeei ere aplikatzea proposatu da. Nahiz eta ez dagoen horri buruzko adostasunik edo eztabaidatu ezinezko ebidentzia zientifikorik, gero eta mediku aditu gehiago dira egun berrogeita hamar urtetan ezarrita dagoen muga jeistea proposatzen dutenak eta, ondorioz, gai hau aztertzea proposatzen dugu.

Bestetik, agerian jarri dira gaixotasun kroniko batzuei buruz (adibidez, erretinosi pigmentarioari edo esklerosi anizkoitzari buruz) egungo atentzioak dituen gabezia batzuk.

Bestalde, neurriak hartu behar dira osasun eta gizarte bazterkeria pairatzeko arrisku handia duten taldeak detektatzeko eta kuantifikatzeko; besteak beste, buru-arazo larriak dituzten pertsonak, mendetasun egoeran dauden adinekoak, arazo anitzeko pertsonak (adibidez, patologia duala dutenak) edo jokabide arazoak dituztenak.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako "Osasuna eta emakumeak" programak zenbait kontzeptu hartzen ditu aintzat, adibidez, "arrisku faktore diferentzialak" edo "erikortasun diferentziala", osasunean ekitatea sustatzeko, emakumeen taldearen osasun berezitasunak kontuan hartuta.

11. Orobat, erakunde honi askatasunik gabeko pertsonen eta atxilotuen eskubideak ardura zaizkio

Konstituzio aginduak ezartzen duenez, askatasunaz gabetzeko zigorren helburua berriro gizarteratzea da.

Dibertsifikatu egin behar dira espetxearen ordeko tratamenduak, eta, gainera, ahalik eta gehien zabaldu behar da erregimen irekiaren bidea; horretarako, botere publiko guztien inplikazioa behar da.





Presoen egoerari dagokionez, aditzera eman behar da, azpiegiturak (batez ere, Langraiz Oka eta Martutene) zaharkituta egon arren, nolabaiteko hobekuntza egon dela, batik bat Arabako espetxean. Zentro horretan, ziegak eta eremu komunak berriztatu egin dira, eta erizaintza hobetu da. Gipuzkoako espetxean hobetu egin dira sukaldeak eta saneamendu sarea nahiz sare elektrikoa.

Tratamenduko langile gutxi izateak sortzen duen arazoaren ondorioz, ezinezkoa da kasu guztiei arreta egokia ematea, horietan jarraipen pertsonalizatua egin beharko bailitzateke; gainera, espetxe politikako funtsezko elementu bat zailtzen du, gizarteratzea.

**Erkidegoaren onurarako lanak** aplikatzeari dagokionez, zenbait gabezia daude, neurri batean, zigor hori orokortzeak eragin dituenak, horrekin batera ez baitira baliabideak gehitu, lan horren gizarte edukia mantentzeko. Gainera, tokiko erakundeekin akordiorik ez dagoenez gero, espetxeek, neurriaren preskripzioa ekiditeko, edukirik gabeko lanak esleitzen dizkiete hori bete behar dutenei.

Baliabideen urritasuna arazo larria da, oro har, presoen lekualdatzeak egiteko, eta lan hori Ertzaintzak egiten du. Horren eraginez, kasu askotan, ezeztatu egin dira osasun eta gizarte zerbitzuekin hitzarturiko hitzorduak.

Aipagarria da gaixotasun oso larriak edo sendaezinak dituzten pertsonen kasua; izan ere, arrazoi horregatik espetxetik irten badaitezke ere, kanpoan gizartearen eta familiaren laguntzarik ez dutenez, gaixotasun horri aurre egiteko baliabiderik ezak eragotzi egiten du preso horiek kaleratzea. Egoera horrek agerian jartzen du beharrezkoa dela EAEko erakundeek baliabide gehiago eskaintzea, askatasunaz gabeturiko pertsonak espetxe hobariez gozatu ahal izan dezaten.

Azkenik, berretsi egin behar da espetxe sistemaren helburua eta justifikazioa presoak berriro gizarteratzea dela, eta ahalegin guztiak helburu hori lortzera bideratu behar direla.

\* \* \* \*

Pozik landuko nituzkeen hemen interesgarriak iruditzen zaizkigun beste gai asko, baina horiek txostenean aurkituko dituzue.

Adierazi dizuedanez, txosten honek beste irakurketa batzuk egiteko aukera ematen du, eta aipaturikoak bezain garrantzitsuak diren beste gai batzuk nabarmendu zitezkeen. Hemen haiek ez azaltzeak ez du esan nahi, ez horixe, aintzat hartzen ez ditugunik, baizik eta azalpen honek iraupen mugatua duela eta denbora-muga hori errespetatu behar dudala.

Benetan eskertzen dut Ararteko erakundeko langileek egiten duten lana. Horiek gabe, ezinezkoa izango litzateke hemen islatu diren jarduera guztiak egitea.







Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen arretagatik, eta legebiltzar ordezkari gisa laguntza eskatu nahi dizuet berriz, estatutuak eta legeak eman dizkidaten zereginak bete ahal izateko.

Eskerrik asko.

